

Xixare baratza taldeak kide diren beste taldeekin mantentzen ditugun lankidetzak harremanak

Otros grupos afines con los que desde el grupo Xixare baratza mantenemos relaciones colaborativas

v	<	>
Baratzak Bizirik mugimendua 0		
BasHerri taldeen sarea 0		<ul style="list-style-type: none"> • Basa-Lili sendabelarrak • Bidazi
Bidazi mugimendua 0		

Baratzak Bizirik mugimendua

Hondarribian 2011ko apirilean Kostako lurren eta baratzen defentsan sortu zen herri-mugimendua gara:

- Hasiera batean Hondarribiko Udalak proposatutako hirigintzako plan orokorraren aurrean iradokizun eta sinadura bilketarekin ekin genion.
- Urte berean, kideek Hondarribiko 30 baserri inguru bisitatu eta egoera ezagutzeko inkesta informal moduko bat egin genuen, eta emaitzak bildu ondoren, udaletxeko alderdi politiko guztiak baserrien bizimoduaren egoera larriaz informatuak izan ziren, eta aldi berean baserriarren bertako merkatua indartzeko beharra plazaratu eta eskatu genuen.
- Ondoren, batez ere Amute-Kostako auzoko eta aldi berean Hondarribi-Bidasoaldeko lurren eta baratzen zaintza defendatzen jarraitu dugu, bai Xixare baratza taldearekin auzolanean, eta baita ere bertako nekazarien beharrak ezagutu eta elkarlanean soluziobideak bilatuz eta ekinez.
- Gaur egun (2013an) Hondarribian "pagina" bezala ezagutzen dugun auzolana berreskuratu eta bultzatu nahi dugu, gure lurra zaindu eta aldi berean herritarren harremanak indartzeko, eta honekin batera auzotarrekin batera Udaletxe zein Aldundiari Kostako erreka garbitzeko eskaera bideratzen ari gara.

Informazio gehiago eta harremanetarako:

- Wikia: <http://gurework.com/BaratzakBizirik>
- Emaila: baratzakbizirik@gmail.com

BasHerri taldeen sarea

BasHerri Gipuzkoan barazki eta bestelako elikagaien auto-hornikuntzarako 2010ean sortutako Talde eta Kooperatiba ezberdinek osatutako harreman-sarea da.

Xixare baratza taldea BasHerri sareko kidea izatea erabaki genuen 2013ko martxoan izan genuen urteko batzarrean.

Informazio gehiago eta harremanetarako:

- BasHerri bloga: <http://basherri.wordpress.com>
- BasHerri ezagutza wikia: <http://basherri.gurewiki.net>
- Emaila: basherriak@gmail.com

Bidazi mugimendua

Herritarren kontsumo arduratsua eta bertako ekoizpen ekologikoa bultzatzen duen taldea da, hasiera batean 2005ean Bidasoako Bortzirietako Beran lagunarte bezala sortu zen, 25 kidek diru-irabazirik gabeko

elkartea eratu zuten, gaur egun 2013an, 15 familia aktibo inguru dira eta hiruhilero guztion artean erosketa arduratsu kolektiboak egiten dituzte, orain 2013an Bidasoaldeko beste herrietara hedatu nahi dute beraien aldarri eta ekimena.

Informazio gehiago eta harremanetarako:

- Bidazi webgunea: <http://bidazi.org>
- Bidaziren aurkezpena wiki honetan: http://gurewiki.net/Xixare/Harreman-taldeak-Grupos_afines/Bidazi